

Bizikleta Zaharra

"Bizikletan ibiltzeko pedalen gainean indarra egin behar da" entzun zuen behin Ikerrek. Egia izango ote da? Galdetu zion bere buruari. Ganbarara igo eta aitonaaren bizikleta zaharra atera zuen beste trasto askoren tartetik. Bi erruedak zulatuak zituenenez, bi partxe jarri zizkion eta, ondo garbitu ondoren, kalera irten zen. Bai, egia zen, bizikleta martxan jartzeko pedalen gainean indarra egin behar zen. Ekilibrioa beste gauz bat zen, eta nola askotan bizikletan ibiltzen zekiela amets egin zuen, ez zion garrantzi handirik eman. Ekilibrioarekin eta pedalen gainean indarra egiten, martxan jarri zen bizikleta zaharrean. Nora joango naiz? Tira... Jaizkibelera!

Eta Iker aitonaaren txirrindu zaharrarekin Jaizkibelera igotzen hasi zen. Tipi tapa, ekilibrioa eta indarra, tipi tapa, ekilibrioa eta indarra, tipi tapa.

Kantinara iritxi zenean gelditu egin zen. Nekatua zegoen.
 -Baixo Iker! Zer, bizikletan? -galdetu zion Jaizkibelko sorginak.
 -Bai, ikusten duzu-erantzun zion Ikerrek.
 -Bizikleta hori zure aitonaarena da, ez?
 -Bai, nola dakizu?
 -Zure aitona eta ni, aspaldi batean, elkarrekin ibiltzen ginen. Eta bizikleta hori nik erregalatu nion.

Iker zozotua gelditu zen, ez bai zekien horren berri. Bere aitona Jaizkibeleko sorginarekin ibilia? Eziz suen sinestu.
 -Bai Iker, ez harritu, zure aitona Axen eta ni oso lagun onak ginen-esan zion sorginak.
 -Eta bazekien aitona zu sorgina zinela? -galdetu zion Ikerrek.
 -Noski zekiela. Bestela ez zen nirekin ibiliko. Aitona Axenek beti pentsatu izan zuen benetako maitasuna lortu nahi bazuen, sorgin batekin ezkondu eta surkituko zuela. Horregatik ni bezelako pertsonai harrigarri batekin ibili zen harremanetan. Nik bera ere asko maite izan nuen. Herrian inork ez zekien ni sorgin bat nintzenik. Ni mendian bakarrik bizi nintzela besterik ez zekiten. Gainera sorgin tituloa, SGA alegia, (Sorgin Gaitasun Agiria) 1969. urtean lortu nuen. Beraz, orain dela gutxi arte ez da herrira nire sorgin gaitasunaz konturatu.
 -Nere aitona sorginen maitasunaren atzetik zebilela diozu? -galdetu zuen Ikerrek.
 -Sorginen maitasunaren atzetik ez. nere atzetik. nere maitasunaren

atzetik. Nik ez nuen Axen niregana erakarri, nahiz eta horretarako botere dexenteak eduki. Elkar topatu genuen, hementxe, orain dela 60 urte, egun berdinean...

-60 urte! Baina... zuk 20 urteko neska bat dirudizu eta!

-Heretzat urteak ez dira pasatzen. Nahiz eta arimaz 160 urte eduki, haragiz 20 bakarrik ditut. Beti izango ditut 20 urte, haragiz....

-Eta nolaz ez zinen ba aitonarekin ezkondu?

-Banekielako egun hau iritxiko zela. Zuk Axenen bizikleta hartu eta honera etorriko zinen eguna...

-Nola...?-galdetu zuen Ikerrek benetan txunditurik.

-Iker maitea, zure zai egon naiz urte guzti hauetan...

-Nire zai?

-Axen eta zu hain berdinak zarete...

Iker dagoeneko txunditua bazegoen, orain are eta gehiago. Jaizkibeleko sorgina, denok izen honekin ezagutzen zuten Jaizkibeleko neska gaztea, benetako sorgina? Aitona Axenekin maitemindurik ibilitakoa, gaur, 60 urte beranduago bere zai, Ikerren zai?

-Iker, nerekin ezkonduko al zera?-galdegin zion.

-Baina zu erotuta zabilta!

-Zure aitona ez zen azkenean nirekin ezkondu, Erretereriko emakume batekin ezkondu zen. Baina Axenek benetako maitasuna nere besoetan aurkitu zuen. Eta nik hori nahi dut, zuk benetako maitasuna aurkitzea. Zer uste duzu bada? Gaur zuk nahi zemuelako etorri zarela honeraino? Ez jauna, nik ekarri zaitut honera, ni neu izan naiz "Pedalen gainean indarra eginda bizikleta martxan jartzen da" ideia zure buruan sartu izan dudana.

-Orduan zuk ekarri nauzu honera?

-Bai, nik nere botereekin.

-Orduan gezurti bat zera. Ni honera ekarri nauzun bezela, nere aitona ekarri zemuen orain dela 60 urte. Bera ez zegoen zutaz maiteminduta, zuk nahi zemuen aitona Axen zuretzako. Eta lortu ez zenuenean orain ni zureganatzea nahi duzu. Ez duzu lortuko, sorgin kaka horrek!!

Jaizkibeleko sorgina sutan jarri zen. Ikerrek esandako guzti hori egia zela bai zirudien. Ikerri hatzaparrekin aurpegia markatu zion. Hau berriz bizikleta gainean jarri eta malda gora joan zen sorgina atzetik korrika zijcala.

Allerru mendi puntaraino iritxi zenezan, sorgina atzean zeukan kriston labaina bat eskuan zeukala.

-Arenek ihes egin zuen baina zu nerekin geldituko zera.

Eta hau esaten zuen unean Ikerrengana zuzendu zuen haizto luzea. Honek berriz bizikleta hartu eta menditik itsasora amildu zuen. Momentu berdinean sorginaren begiak gorri gorri bihurtu ziren eta garrasika bizikletaren atzetik joan zen itsasoraino. Han biak desagertu egin ziren.

-Agur, Jaizkibeleko sorgin gazte zaharra...-esan zuen itsasora begiratzen zuen bitartean.

Ikerrrek orduan zera pentsatu zuen: "Hanka bat surrera eramanda eta gero bestea, gorputza martxan jartzen da". Eta etxerako bidea zuzenduaz, tapa tapa berriro jeitsi zen.

EGIA BAZAN, GEZURRA BAZAN...SARTU ZAN KALABAZAN

Mikel SUSPERREGI.

